

# 88 EKO PYRENAICA SARIKETAK

«Aventura menditan»  
gaiari buruzko sariketaren  
lehen accesit, euskaraz.

## Posets, itzuliko naiz!

MIKEL ARRIZABALAGA

«Martxan jarri gabe  
ez zara inora iritsiko  
eta ez duzu ezer bukatuko  
hasiera ematen ez badiozu.»  
(Txinatar esaera zaharra)

Viados kanpamendua.  
Posets atzean.

**B**AKARRIK «Hontza»-k apurtzen dik gau honetan Viadoseko zeru dizdiratsuan irristalatzen den isiltasunaren oihartzuna. Izarrei so, zaunkaka hasi duk, Fulgen eta Xabier dagoenekoz ametsetan murgildurik daudelarik.

Ezin diat lorik egin eta «Hontza» laztanduz, ferekatuz, lasaitzen saiatzen nauk. Gueko haize leunak, dauden hodei bakar-rak aldentzen ditu Posetseko gailurra nere aurrean harro agertzen delarik.

Ilargiak igortzen duen argitasunak bere zilueta markatzen dik, ederra, erakargarria, desafioka, fioka, oka, ka...kaka zaharra! Fulgen zurrunka hasi duk berriz eta «Hontza» zutitu egin duk edertasun guzti hori zaindu nahi izango balu bezala, zala, la, LO.

Eltxo madarikatu hauek goiz esnatzen dituk! Lozakuan sarturik, momia gisa, gorputza nagia sentitzen diat eta ez zeukeat altxatzeko gura handiegirik. Xabierrek eta Fulgenek lo seko darraite. Posets aldera zuzendu dizkiat nere begiak —mekagüen zotz!— gailurra estalirik agertu duk, gauetz itzarrirek izan ditudan ametsak aienatzen hasi dituk.

Fulgen! Xabier!

Katilua te eta esnez beterik, bi eskuen artean estutzen dudun bitartean berriz gailurrerantz begiratu diat eta bazirudiek ausporen batek eraginda edo garbitu nahi duela. Gurekin dagoen jendea animatzen hasi duk eta «Pitxi»-k berehala aterako gara adierazi digu.

Fulgenek kaskotik ondo ez gaudela esan digu, berari tontorrera igotzeak ez bait dio ilusiorik egiten, nahiago du mendi honen magaletik abiatu, bera inguratuz eta ibilbidean aurki ditzazkeen lore, animalia etabarrekin harremanetan jarri, ukitu, laztandu, danarekin bat egin.

Bitxia benetan gure Fulgen! Bitxia baina jatorra oso. Xabier berriz, kementsua, inoiz etsitzen ez duen horietakoa, lagun zintzoa oso.

Bagoaz! —dio «Pitxi»-k.

Hogeitabi lagun, Viadoseko borden tarterik, kanpamenduari bizkarra emanez eta aurrean daukagun erraldoiari aurre eginaz abiatu gaituk. «Cinqueta de Añes Cruces» gurutzatu diagu eta lehenengo maldak igotzen hasten garenerako konturatzen haiz birikak oxigenatu gabe dauzkakela eta erritmoa hartzea kostatzen zik eta, halere hilara luze batetan murgildurik pinudian sartu gaituk, malda geroz eta gogorragoa egiten delarik. Ez du inork hitzik esaten, indarrak gorde nahiean edo arnashotsak nabarmentzen dituk eta lehen izerdi tantak bekainetatik zintzilikatzen hasi zaizkit estalaktitak bait lira. «Koldo»-k markatzen duen erritmoa gogor xamarra egiten zaigu eta pinuditik ateratzean, larre berde batzuetara iristean, atsedenaldira motz bat egin diagu.

Han behe behean, Gistaineko portutik abiatuko den taldea, hilaran, prozesio gisan.

Espadasetik jeisten den gogorgarriaren azpian atsedenaldira; hotza, izerdia gela



Fotos del autor.





Posets.

Posetseko gailurrean taldea.

balitz gorputzari erantsita, arropak aldatu eta tontorretik jeisten den aire gelatuarengatik babestu nahian haitz baten babesa- ren bila joan nauk, baina ez! Motxila ireki, zerbait jan eta gehiegi hoztu baino lehen berriz martxan gara. «Pitxi»-k animatzen gaitu, gure ahotsak aditu nahi ditu bere atzean gaudela frogatu nahiz.

Harritzak igaroz, Llardanako glaziererra iritsi gaituk, mendebaldeko muturrean kokatuz. Zigzagean, bizkarrean zehar dagoen xendak lpar tontorrera garamatza; iristean ezin izan diat une batez aurrera jarraitu, koskabiloen azpikaldean azkure ezagun bat sentitu diat, nere etxeko balkoetik behera begiratzen nuenean bezalako sentsazioa izan da, baina ezin izan diat ekidin. Ezker- eskubi, gela-arroka amildegiei begiratzeko, aurrean dagoen tontorrerantz abiatu nauk, robota baitnintz, azkenean, tontorra, ton- toa, eroa... ni hemendik ez noa!

Hemen ez diat gizazurrunbilorik aditzen, ez zeukeat ordulariari begiratu behar, ezta ere aparkalekurik bilatu edota semaforoe- tako gizontxo berdea jartzen den arte itxoin. Hemen «SO EGIN» soilik. Nere in- guruan mendiak, gailurrak, zelaia, lakuak, glaziarreak, zuhaitzak, arrokak, belarra, lo- reak... hotsik gabekoa baina bizitzaren la-

burpena dakusak. Asetzean (ez bait haiz inoiz asetzen) betikoari ekin zioat, argazki mordo atera, zerbait jan eta lurrean etzan- da atzedentxo bat.

Une batez ixiltasunaren laguna haiz.

Jeisten hasteko ordua iritsi duk eta «Pi- txik»-k hiru taldetan banatu gaitu. Harriz- ko blokeen gainetik saltoka Posetseko glaziarerantz abiatu gaituk. Hilaran jarriz eta elurretan oinatzak utziz Pauleko lepora iritsi gaituk. Hemendik eta Coma de la Paul hartuz, Estoseko Haranerantz gara- matzen jetsiera luze bat egin diagu ahal izan dugunean «la escoba»-rena eginez. Glaziarrea amaitu eta Estoseko aterpera eramango gaituen xenda hartu diagu.

Errekaren eskubialdetik paraleloan doan bidexkak Estoseko haranaren edertasunak erakusten dizkigu. Atzean, Maladeta, Ane- to eta erraldoaik; horiek hurrengorako utziko dizkiagu, orain han behe-behean ikusten den errekarra ahal den azkarren iris- tea da gure helburua. Bidean alto bat egin eta oso bitxia den lore bat, Fulgen, gure Fulgenenat hartu diat. Martxa arindu diagu baina ez gaituk iristen, bertan da- goela zirudiek baina gogoak distantziak baino motzagoak dituk, halere iritsi gaituk.

Gorputza biluztu diat, motxila, arropak

etabar edozein modutara erreka ondoan barreiatu ditudalarik. Ur fresco, beno hobe esanda ur gelatuetan sartu naiz eta gorpu- tza astindu diat elektrizitatea edukiko banu, ezin diat hotza jasan, karraxi batzuk bota eta triska batez berriro belardian ne- gok, toaja hartu eta lehortu egin nauk.

Egun osoko nekeak bapatean desagertu dituk, iharrak tinko eta ileak tente besteen zai geratzen haiz egunean zehar igarotako une guztiak gogoratu.

Fulgenen loreak galdu zaizkit. Zoritxa- rra!

Xabierrek errekan murgildurik darrai.

Pitxi eta besteak etzanda, Hontza lagun- tza-jeepean Eusebio amorraraziz, Fulgen Batisielleseko edertasunaz gozatzen eta nik berriz... gailurrari begiratu eta han ze- gok, isilik, bakarrik, harro. Hurrengoarte! Itzuliko naiz!

#### Bibliografia ta mapak

«Posets». Editorial Alpina. 1977.

«Ruta de los tresmiles», *Rutas Pyrenaica*'n. Alejos, Luis, 1988.

## RESUMEN

### Posets, volveré!

*Imposible dormir en este vivac en Viadós, a los pies de la inmensa mole del Posets, iluminada por la luna y animada por los ladridos de Hontza y los ronquidos de Fulgen.*

*Al amanecer la caravana de 22 amigos se pone en marcha a las órdenes de Pitxi para subir al Posets por la vía normal de la cara W: «Cinqueta de Añes Cruces», pinar de los clots, glaciar de Llardana. Y luego a la cima, plenitud, después de los sensacionales cortes al vacío desde la Punta Norte.*

*Bajada por la vertiente N (glaciar de La Paul) para terminar en Estós con un reconfortante chapuzón en las heladas aguas del barranco y la contemplación del gigantesco Posets.*

